

UDALBERRI

4. zbkia. Ataungo Udal Aldizkaria 1997ko Otsaila

- 1997RAKO 156 MILIOIKO AURREKONTUA ONARTU DU UDALAK
- AIAKO ATERPEA ERAIKITZEN HASIAK DIRA
- HERRIBIDE ZAHARRA BERREGOKITZEARI EGIN ZAIO
- 1990-96: 119 MILIOI INBERTITU DIRA ATAUNGO MENDIETAN
- GARAPEN BIDEAN DAUDEN HERRIALDEEKIKO ELKARTASUNA
- ETA ABAR...

sarrera

Herritar lagun.

Azken hilabete hauetan udalgintzak eman duena laburbiltzera gatzokizu. Beti ez dira egitasmoak nahi bezala ateratzen, ez eta nahi bezain azkar eta errez ere. Baina ahaleginak emaitzak ekarri ohi ditu, hutssegiteak ere berarekin dituelarik. Eta hoien berri herritarro i ematea ezinbestekoa zaigu, herritarro n iritzia jasotzea zaigun bezalaxe.

Udala herritarro ngana gerturatzeko eta herritarro k udalgintzara biltzea ditugu helburu. Udalgintza ezin da ulertu zinegotzien lan bezala bakarrik, ardurak ezberdinak badira ere, bakoitzari bere neurria guztio idagokigu herriarekiko konpromezua hartzea.

Esketzekoa da hainbat herritarrek zentzu honetan egiten duten lana, era batera edo bestera herri-lanetan parte hartuz. Elkarlan hori aberasten dugun heinean, gure herriaren geroa eraikitze bidean pauso garantzitsuak emango ditugu.

Aitor Auzmendi Asurabarrena

Alkatea

2

sakonean

208 milioi pezeta 1998rako

Erroipe bukatuta

Astigarragatik Arrondora

Pagadien antolamendu plan berria egin da

Herribide zaharra ibilbideetako bat

Baserri bideak hobetzen

%0,7 elkartasunerako

**Arau ordezkatzailen aldaketa, lur
ez-urbanizagarriari dagokionean**

Artxibo historikoa

Abiadura handiko trena dela eta

Autobus zerbitzu berria

Organoa: Diska eta liburuxka kalean

Herri lurren antolaketa



**Kultur eta kirol ekintzen garapenerako
dirulaguntzak**

**Aitzarte eta San Gregorioko erreka
bideraketak**

208 MILIOI PEZETA

1998rako

Urtea hasi aurretik, 1997ko abenduaren 3an eginiko Udalbatzaren Osoko Bilkuran onartu zen 1998rako aurrekontua. Honetan, 1998.ean zer diru sarrera izango diren aurreikustearekin batean, baliabide hoiek zer nola erabiliko diren zehazten da. Kontutuan izan behar da, bai sarrera eta baita irteerak ere urtean zehar aldatu daitezkeela, ahalbideak eta beharrak aldatzen diren heinean. Hona hemen aurrekontua atal nagusietan banatuta:



KAPITULUA	IZENDAPENA	PEZETAK
	GASTUAK	
	<i>A) Enjike eta arruntak</i>	
1	PERTSONALA	26.800.509
2	ONDASUN ARRUNT ETA ZERBITZUAK	52.326.210
3	FINANTZA GASTUAK	3.287.961
4	TRANSFERENTZI ARRUNTAK	10.766.500
	<i>B) Kapital enjikeak</i>	
6	INBERTSIO ERREALAK	105.475.000
7	KAPITAL-TRANSFERENTZIAK	4.027.600
9	FINANTZA PASIBOAK	6.052.678
	GASTUAK GUZTIRA	208.736.458
	SARRERAK	
	<i>A) Enjike eta arruntak</i>	
1	ZUZENeko ZERGAK	15.060.000
2	ZEHARKAKO ZERGAK	1.500.000
3	TASAK ETA BESTELAKO SARRERAK	18.801.358
4	TRANSFERENTZI ARRUNTAK	87.865.000
5	ONDARE SARRERAK	9.010.100
	<i>B) Kapital enjikeak</i>	
6	INBERTSIO ERREALEN BETERENGANAKETA	29.000.000
7	KAPITAL TRANSFERENTZIAK	47.500.000
	SARRERAK GUZTIRA	208.736.458

Lehen gainbegirada batetan, inbertsioetarako 105 milioi pezeta izatea da nabarmentzen dena, Ataungo Udalak urteko 28 milioi pezeta inguru zuzendu ahal bait ditu zeregin honetarako.

Zer egin nahi da dirutza honekin? Batez ere hiru proiektu aipatu behar dira: Bat, zinema-antzokia, futbol zelaian egiten ari diren etxebizitzak atarian. Bi, San Gregorioko eskolak birmoldatu, bertan mediku kontsultegia, areto nagusi, jolas gela eta antzeko zerbitzuak bideratuz. Eta hiru, futbol zelaiko etxebizitzak azpikaldean liburutegia, posta zerbitzua, erabilera anitzetarako gela bat eta komunak egokitu.

Baina nola aurre egin inbertsio hauei? Urteroko diru sarrera arruntez gain aurtengorako espero diren ondorengo hauek aipatu behar dira: Batetik, Udalak San Gregorioko frontoiari dagokion 37 milioi t'erdiko dirulaguntza aurtun jasoko du, eta horrez gain zinema-antzokirako 10 milioitako laguntza agindu berri dio Foru Aldundiak. Bestalde, bai San Martinen eta baita San Gregorion ere, mediku kontsultegi berriak eraikiko direnez, bi auzoetako mediku etxeak saltzeko asmoa du, 29 milioiko pezeta diru sarrera aurreikusiz.

Ondorengo lerroetan atalez atal aztertuko dugu aurtengorako aurrekontua:

I. GASTUAK

1.1. Pertsonala (26.800.509):

Udal langileen soldatak eta hauen seguritate sozial ordainketak daude atal honetan aurreikusita. Ohizkoak 6 langile izan arren, lan bereziatarako kontratatzen diren langileen soldatak ere hemen sartzen dira.

1.2. Ondasun arrunt eta zerbitzuak (52.326.210):

Atal zabala da hau. Hemen sartzen dira Udal eraikuntza eta gaineratiko kontserbazio, mantentzen eta artapenak, eta hauen funtzionamenduak sortzen dituen ohizko gastuak, energia elektrikoa eta aseguruak adibidez. Baita Udalak ematen dituen hainbat zerbitzuren kostua ere. Hona hemen adibide batzuk:

*Bide publikoen mantentzen eta kontserbazioa (Baserrietako bideak barne)*5.000.000

*Ur sarea eta saneamenduaren kontserbazio eta mantentzen*850.000

*Udaletxea, Atsedan-Toki, Eskola, Mediku-etxeak, hilerriak, Auzo eta Udal kiroldegia, Zelai frontoiak eta Erroipe aterpearen kontserbazio eta mantentzen*3.350.000

*Makineria, instalazioak eta tresneria*450.000

*Ekipamendu informatikoa*620.000

*Bulegorako materiala*975.000

*Liburutegirako erosketak*525.000

*Udaletxea, Atsedan-Toki, Eskola, Mediku-etxeak, hilerriak, Auzo eta Udal kiroldegia, Zelai frontoiak eta Erroipe aterperako hornidurak (argi indarra, gasoila ...)*3.390.000

*Herri argiteriaren energia elektrikoa*2.650.000

*Ur Kontsorzioari deposituetatik irten den uraren araberako ordaindu beharrekoa*3.825.000

*Udaletxea, Eskola, Mediku-etxeak, eta Auzo eta Udal kiroldegia telefono eta posta zerbitzuak*2.063.000

*Aseguruak*1.025.000

*Harreko ofizialak*500.000

*Udalberri aldizkaria*540.000

*Gastu juridikoak*450.000

*Herriko festa ezberdinak*4.677.210

105 MILIOI
PEZETA
AURREIKUSI
DIRA
INBERTSIOETA-
RAKO

SAN
GREGORIOKO
ESKOLAK
BIRMOLDATU
EGINGO DIRA

ZINEMA- ANTZOKIAREN ERAIKUNTZA AURTEN HASIKO DA

Garbiketa zerbitzuak: Udaletxea, Medikun
etxeak, Eskola, Zelai frontoia, komun
publikoak ... 4.950.000

Zabor bilketa zerbitzua (Sasietak)6.200.000

Hirigintza mailako azterketa eta lan
teknikoak2.555.000

Tributuen gestio agatik Foru Aldundiari700.000

Gestoria, itzulpen eta antzeko zerbitzu
batzuk450.000

Beharrez daudenei etxez etxeko
laguntza2.660.000

Aldibaterako lan kontratazioak400.000

Auzo eta Udal kiroldegien ustiaketa1.800.000

Udal langileen dieta eta kilo metraia350.000

Alderdiak dirulaguntzak eta
inegotzien dieta eta km.1.100.000

Zerrenda luzeegia ez egitearren,
partida batzuk aipatu gabe gelditu
dira eta beste batzuk elkarrekin batu
ditugu.

1.3. Finantza gastuak (3.287.961):

Aurreko urteetatik datozen eta or-
daintzen garen kredituei dagozkien
interesei buruzkoa da diru izenda-
pen hau.

1.4. Transferentzia arruntak (10.766.500):

Instituzio, elkarte eta pertsona ez-
berdinei ekimen jakin batzuk au-
rrera eramanez ahal izateko luzatzen
zaizkien diru ordain eta laguntzak
sartzen dira atal honetan:

Enerio-Aralar Mankomunitatea255.000

Eudel50.000

Gizakia helburu250.000

Goieki945.000

Emergentziak laguntzak: Beharrak
dituzten familiak, presoak e.a.2.000.000

Jubilatuak ekintzetarako870.000

Kultur eta kirol ekintzetarako3.120.000

Kirol erresko larreko dinamizazioa400.000

Bestelako gizarte zerbitzuak (0'7 ekimena,
Gurutze Gorria, Odol-emaleak, Seaska,
Nafarroa Oinez e.a.)970.000

Goimen1.500.000

1.6. Inbertsio errealek (105.475.000):

Ondorengo hauek dira atal hone-
tan 1998rako aurreikusi diren inber-
tsioak:

Lur erosketak 300.000

Astigaraga-Arroñdo argiteri
publikoa 1.000.000

Baserri bideak 2.500.000

Lehendik asfaltatutako baserri
bideak berriro asfaltatu 4.000.000

San Gregorio eskolen birmoldaketa
(mediku kontsultegia, areto, jolas
gela e.a.)25.000.000

Zinema antzokia40.000.000

Liburutegi berria eta beste areto
batzuk27.000.000

Nitxo en tapak 925.000

Barandiaran interpretazio zentrua:
mapa topomikoa 2.000.000

Eskalada eskola 500.000

Paskual iturriko urbanizazio proiektua
1.000.000

Sutegi aurreko urbanizazio
proiektua 1.000.000

Herri basoetan inbertsioak 250.000

1.7. Kapital transferentziak (4.027.600):

Atal honetan, inbertsio jakin ba-
tzuk egin ahal izateko beste institu-
zio batzuei zuzentzen zaizkien la-
guntzak (Atauni dagokion diru
ordaina) sartzen dira:

PAT dela eta Ordiziako
Udalari50.000

Azpiegitura hidrauliko en-
kanoa dela eta Ur
Konsortzioari3.160.000

Goierriko Lanbide Eskolako
inbertsioetarako Goierriko Herrien
Ekintza Fundazioari.....817.600

1.8. Finantza pasiboak (6.052.678):

Aurrez aipatu dugu Udala ordaintzen ari den kredituen interesei aurre egiteko atala. Atal hau aldiz, kreditu hoiei dagokien amortizazioa ordaintzeko da, aurtengoan 6.052.678 pezeta aurreikusi dira horretarako.

2. SARRERAK

2.1. Zuzeneko zergak (15.060.000):

Atal honetan sartzen diren zergak eta beraien bitartez 1998an jasotzea espero ditugun diru kantitateak ondorengo hauek dira:

<i>Landalurren gaineko zerga</i> (kontribuzioa).....	630.878
<i>Hirilurren gaineko zerga</i> (kontribuzioa)	5.069.122
<i>Trakzio mekaniko eta</i> <i>bilgailuen gaineko zerga</i>	7.500.000
<i>Hiri lurren balio gehitzearen</i> <i>gaineko zerga</i>	60.000
<i>Ekonomi iharduera gaineko</i> <i>zerga</i>	1.800.000

2.2. Zeharkako zergak (1.500.000):

Zeharkako zergetan, ekimen ezberdinak aurrera eramateagatik ordaindu beharreko zergak aurreikusten dira. Ataungo kasuan, "Eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zerga" bakarrik daukagu, eta konzeptu honetan miloi t'erdia pezetako diru sarrera aurreikusi da.

2.3. Tasak eta bestelako sarrerak (18.801.358):

Atal honetan, zerbitzu ezberdientzat herriarrok ordaindu beharreko tasak sartzen dira nagusiki, eta horrez gain Udalak izan ohi dituen

beste sarrera batzuk ere bai, Iberdrola eta Telefonica-k egiten dituztenak adibidez. Hona hemen kantitatearik nagusienak:

<i>Zabor bilketa tasa</i>	6.200.000
<i>Estolderia tasa</i>	1.610.000
<i>Udal hilerri tasa</i>	2.025.000
<i>Hirigintza baimenak</i>	770.000
<i>Udal ur-hornidura</i>	6.200.000
<i>Udal kiroldegia</i>	312.000
<i>Iberdrola</i>	636.000
<i>Telefonica</i>	467.700

2.4. Transferentzia arruntak (87.865.000):

Herritarrok ordaintzen ditugun hainbat zerga ez ditu Udalak jasotzen, baina zerga hoietatik zati bat, jaso ondoren Foru Aldundiak udalei zuzentzen die, hori delarik Udalaren sarrerarik garrantzitsuenak. Horrez gain atal honetan sartzen dira ekimen berezietarako Udalak beste instituzioetatik jasotzen dituen dirulaguntzak ere. Hona hemen garrantzitsuenak ematearen arabera sailkatuta:

Estatuak

<i>Itundu gabeko zergetako partaidetza</i>	100.000
--	---------

Eusko Jaurlaritzak

<i>Bake-Epaitegiako laguntza</i>	150.000
<i>Liburutegiako laguntza</i>	135.000

Gipuzkoako Foru Aldundiak

<i>Itundutako tributuetako</i> <i>partaidetza</i>	82.100.000
<i>Gizarte laguntzaileak</i> <i>kontratatzeko</i>	1.600.000
<i>Enplegu sustapen programarako</i>	850.000
<i>Etxez-etxeko laguntza programa</i> <i>burutzeko</i>	1.200.000

LIBURUTEGIA
ERE ETXE
BERRIETAN
KOKATUKO DA

**SAN
GREGORIOKO
FRONTOIARI
DAGOKION 37
MILIOI T'ERDI
PEZETAKO
LAGUNTZA
JASOKO DA**

*Emergentzizko laguntza
kanpainarako*800.000

Kultura dinamizazio rako100.000

Kirol extraeskolarra dinamizatzeko ..140.000

Jubilatuentzako laguntza330.000

Besteak

*Etxez-etxeko zerbitzua jasotzen
dutenak*250.000

*Irabazizko xederik gabeko
rakundeenak*100.000

Bestelakoak10.000

2.5. Ondare sarrerak (9.010.100):

Hemen hiru alor bereiz ditzakegu: Lehenik, Udalak dituen diruak eman ditzaketan interesak. Bigarren, Udalaren jabetzakoak diren baina beste batzuk erabiltzen dituzten ondasunen alokerak (errentak). Eta hirugarren, baso aprobetxamenduetatik jasotzen dena. Hona hemen 1998rako aurreikusia:

Gordailuen interesak800.000

Alokerak (errentak)30.100

Atsedeen-Tokiko kanona180.000

Baso aprobetxamenduak8.000.000

**2.6. Inbertsio errealen
besterenganaketa (29.000.000):**

Lehen azaldu bezala, egin nahi diren inbertsioei aurre egiteko San Martingo eta San Gregorioko mediku etxeen salmenta aurreikusi du Udalak, bai San Martinen eta baita San Gregorion ere berriak egitear bait daude. Atal honetan salmenta hauetatik jasotzea espero dena bildu da:

*San Martingo mediku etxearen
salmenta*16.000.000

*San Gregorioko mediku etxearen
salmenta*13.000.000

**EZ DA KREDITU BERRIRIK
BEHARKO 1998AN.**

**2.7. Kapital transferentziak
(47.500.000):**

Atal honetan, Udalak egin asmo dituen hainbat inbertsio (irteeren 6. atalean aurreikusiak) egin ahal izateko beste instituzioetatik jasotzen ditugun dirulaguntzak sartzen dira. Aurtengoan baita lehendik egindako inbertsioenak ere, orain jasoko baitugu San Gregorioko frontoiari dagokion dirulaguntza.

*San Gregorioko frontoiarako Foru
Aldundiak*37.500.000

*Zinema antzokirako Foru
Aldundiak*10.000.000

2.9. Finantza pasiboak (0):

Aurtengo gastuei aurre egiteko ez da kreditu berririk irekitzerik aurreikusi. Baina Udalak lehendik baditu kreditu batzuk eta gaur egungo zorra 47 milioi pezetakoa da, hau da, Udal baliabide arruntan %30a. Baina kontutan hartuz zor horri aurre egiteko 1998an amortizazio eta interesetan Udalak ordainduko duena, finantza zorra %6koa dela azpimarratu behar da.

**UDALAREN
FINANTZIAZIO ZORRA
%6KOA DA**

ERROIPE BUKATUTA

Aiatarrek behin eta berriz eskatu izan duten aterpea herrietarren zerbitzura dago 97ko Santa Isabel egunaz geroztik. Erroipe izena izango duen aterpe honetan, mediku kontsultategia, komun publikoak, biltegi bat eta erabilpen anitzetarako bi aterpe gune eraiki dira.

Eraikitze lanak aurrera zihoazen heinean ezustekoak sortu dira eta haseran aurreikusitakoa baino diru gehiago gastatu behar izan da. Egin den tokian ur asko eta lur oso mugikorak agertu dira, eta hauei egonkortasuna emateko ustegabeko eskollerak eta ur bideraketak egin behar izan dira.

Udalak 25 milioi pezeta zituen honetarako aurreikusiak, baina azken kostua 39.920.379 pezetakoa izan da, horrez gain, aurrez lurzorua 410.800 pezeta ordaindu zelarik. Desbideraketa honi, 1997ko aurrekontuak aldatuz egin dio aurre Udalak, beste gauza batzuk utzi eta lehentasuna Aiako aterpeari eman zaiolarik.

•
**40 MILIOI
PEZETAKO
KOSTUA
IZAN DU**
•



ERROIPE ATERPEA



MEDIKU KONTSULTATEGIA



ATERPE AZPIKALDEA



INAUGURAKETA EKITALDIA

ASTIGARRAGATIK ARRONDORA

Espaloiak, saneamendua eta ur-hornidura



ARRONDORA SARRERA

Amaitzear daude Astigarraga eta Arrondo bitartean eginko eraikuntza lanak. Itsura batetan espaloiak bakarrik egin direla dirudien arren, ondorengo hauek izan dira burututako lanak:

- Gabillenetik Lizarmuntegira bitartean oinezkoentzako espaloia; horretarako une batzuetan erreka eta beste batzuetan erre-pide nagusia desbideratu behar izan dira.
- Gabillenetik Mantxitonera bitartean edateko urarentzat tuberi berria sartu da.

- Asintxionetik Urbitartera bitarteko etxeetako ur zikinak bildu dira. Lehen Urbitarteraino iristen zen tuberi nagusia eta bertarainokoak bilduak ziren. San Martingo ur zikinak etorkizunearan Legorretan eraikiko den depuradorara tuberi bidez eramatea da helburua.
- Argiteri publikoa berritu egin da.

Proiektuaren arabera, lan hauen kostua 98.326.397 pezetako zen, proiektuaren erredakzioa eta obren zuzendaritza kontutan hartu gabe.

•

**100 MILIOI PEZETA
INBERTITU DIRA
ETA HORIETATIK
UDALAK 30 MILIOI
JARRI DITU**

•

Orotara beraz 100 milioitik gora inbertitu dira. Baina obraren finantziazioa ez da Udalaren gain bakanrik joan:

- Ataungo Udalak ur hornidurari bere osotasunean eta espaloien kostuaren %25ari egin dio aurre: 29.238.466 pezeta. Horrez gain erosi behar izan diren lurak ere Udalak eskuratu ditu metro karratuko 1.300 pezetatan.
- Gipuzkoako Foru Aldundiko Garraio eta Errepide departamentuak espaloien kostuaren %75ari egin dio aurre: 34.874.184 pezeta.
- Gipuzkoako Foru Aldundiko Obra Hidrauliko eta Hirigintza Departamentuak saneamendu edo ur zikinak biltzeko tuberi sarearen kostuari egin dio aurre: 34.213.747 pezeta.

Obra hauek egiteko burutu zen lehiaketa publikora 6 enpresa aurkeztu ziren, eta 1997ko ekainaren 4ean egindako Osoko Bilkuran Udalbatzak lan hauek Construcciones Donosti S.A.ri adjudikatzeko erabaki zuen, bera bait zen merkeena. Proiektuaren erredakzioa eta obraren zuzendaritza Injelan enpresaren ardura izan dira.

Hasera batetan proiektuan aurreikusi gabeko hainbat lan ere egin dira, hauek egiteko momenturik egokiena obra garaia zela kontutan izanik: Gabillenetik Dornainera bitartean eta Lizarmuntegitik Mantxitonera bitartean ur tuberi berria sartu, Arrondon aparkalekua bideratu, Lizarmuntegitik Lopetxerako herrir bidea tajatu, Eskolan semaforoa jarri e.a... Lan berri hauek suposatutako gain kostua eta obra aurrekontuaren azpitik adjudikatu zela kontutan izanik, Udalak ordaindu beharrekoa 30.235.649 pezeta izan da. Horrez gain, zuzendaritza lanak 1.245.072 pezetako kostua izan dute.

t
**ESKOLA
AURREKO
SEMAFOROA**



•

HAURREN

SEGURTASUNERAKO ESKOLA

ATARIAN SEMAFOROA

JARRI DA

•

PAGADIEN ANTOLAMENDU PLAN BERRIA EGIN DA



t
AGAUNTZA
MENDIA

•
**ATAUNGO
PAGADIEN
EGOERA
LARRIA DA**

Martxoaren 4ean egindako Osoko Bilkuran, pagadien antolamendu plana onartu zuen Udalbatzak. Ataunek 1.700 hektarea pagadi ditu, hoietatik 700 inguru direlarik herriarenak. Legegintzaldi haseratik kezkatu agertu izan da Udala herriko pagadien egoeraz, eta lehen lehenik 1989an onartu zen antolamendu planaren ebaluaketa bat egin zen. Lehen egoera larria bazen orain larriagoa da, zehaztutako helburuak ez baitira lortu eta ondorioz hainbat eremutan pagadien birsorketarik ez da eman behar litzatekeen moduan, horrek pagadien zahartzea dakarrelarik.

Ondorioz, pagadien birsorketa bermatu, zuhaitzen kalitatea hobetu eta ustiaketa antolatzeko helburuarekin, egitasmo berri bat egitea ezin bestekoa ikusi zen.

Gipuzkoako Foru Aldundiko Nekazaritza eta Ingurugiro Departamentuak kezka honekin bat eginik, bost milioi pezetako aurrekontuarekin lehiaketa publikora atera zuen lan hau, eta IKT entrepresa izan da plan berri hau burutzeaz arduratu dena.

Aldaketarik nagusia zera da, aurreko planak pagadi irregularra lortzea zuela helburu eta oraingoak erregularra.

Pagadi irregularra bezala ezagutzen den antolaketa, oso metodo berria zen, gure inguruetan ez baita ezagutzen pagadietan horrelako antolaketarik. Pagadietan adin guztietako pagoa izatea suposatzen du metodo honek, noizean behin entresakak eginez zaharrenak botaz eta etengabe pago gazteak sortzea bermatuz. Udalari, horrek, alde batetik, ganaduari dena etengabe itxita eduki beharra dakarkio, bestetik, bide sare trinkoa mendiko bazter guztietara iristi ahal izateko, gainera ustiaketa heterogeneoa izatea, bai moztutako zuhaitzen diametroari dagokionez eta bai atera behar diren tokiari dagokionez ere, eta azkenik mozketa oso kontuz kudeatu behar izatea, hektarea bakoitzeko adin ezberdinetako pagoak dagozkion portziotan izatearren.

Antolaketa hori martxan jarri zenez geroztik urte batzuk pasa direnean, esan genezake pagadien egoera ez dela ona. Leku gehienetan ganaduari itxi ez izanak, egindako mozketen eraginak, berezko hilkortasunak eta pagoaren beraren ezau-garriek (pago helduen adarrek, mozketak txikiek utzitako hutsuneak betetzera eta sortutako landare gaztea itotzera jotzen baitute) etorkizuna ilun ikustarazten dute. Hori garbi ikusten da 1989an egin zen inbentarioa oraingoarekin alderatuz: diametro zabaleko zuhaitz gutxi dago, erdi tamainkoa dutenen kopuruak nabarmenki behera egin du, gazteen erreleborik ez dator eta zuhaitz kopurua jaitsi egin da.

Nafarroan, Ataungo pagadien antzekoentzat, 468 zuhaitz hektareako dentsitatea eta 31'5 metro karratu hektareako azalera basimetrikoa ematen dira ontzat. Ataunen aldiz 300 zuhaitz hektareako eta 20 metro karratu hektareako azalera basimetrikoa ditugu.

•

**AURREKO PLANAK
PAGADI IRREGULARRA
LORTZEA ZUEN HELBURU
ETA ORAINGOAK
ERREGULARRA**

•

Egoera larria da beraz eta neurriak hartzea, ezinbestekoa. Horregatik, plan berri honek proposatzen duenaren arabera, basoa baso erregular bezela antolatzea erabaki da, hau da, pagadia zenbait zatitan banatu eta zati bakoitzean adin bereko pagoak izatera jotzea. Horrela, zuhaitz za-



harreneko zatiak moztu beharko dira lehenik, basoa zati horietan berritu dadin, eta zati horiek itxi beharko zaizkio ganaduari, guztiz basoberritu harte. Guztira 30 hektarea inguruko 19 zatitan banatu dira Ataungo pagadiak, pago mota eta lurzorua kontutan hartuta.

Hurrengo 20 urteetan hoietako 3 zatitan basoa berez berritzea aurreikusita da. Horretarako mozketak egingo dira zati hoietan, pago on bakoitzak batzuk utziaz birsorketarako, eta zati hoiek ganaduari erabat itxiko zaizkio pagadi berria ziurtatu arte.

Gaineratiko zatitan, hobetzeko mozketak egingo dira, aurrez aipatutako 3 zatietan bezala hauei ere basoa berritzeko garaia iristen zaizenean, landare berriaren sortzaile zuhaitzik onenak izan ditzagun.

3 zati hoietan pagadi berria ziurtatzen denean, hau da, landare gaztea indartzen denean, itxiturak kenduko dira eta beste zati batzutan egingo da operazio berdina.

•

**PAGADIEN
BIRSORKETA
BERMATZEA,
ZUHAITZEN
KALITATEA
HOBETZEA
ETA
USTIAKETA
ANTOLATZEA
DIRA
HELBURU
NAGUSIENAK**

•

HERRIBIDE ZAHARRA IBILBIDEETAKO BAT



t
BERNOKO
KALTZADA

•
**6 IBILBIDE
TAJUTU ETA
SEINALIZATU
DIRA**
•

Garapen Planean aurreikusitako turismo alorreko ekimenak aurrera eramaten ari da Udala. Hoietako bat, herrian zehar 6 ibilbide tajutu eta seinalizatzea izan da. Ibilbide batek Troskaetako koba bisitatzeko aukera eskeintzen du eta beste batek Sastarrikoa, horretarako bi koba hauek ere garbitu eta seinalizatu egin dira. Hona hemen ibilbideak:

SARA

San Martin - San Gregorio - Graziñerre - San Martin

Luzera: 7'5 Km **Iraupena:** 3 ordu

TROSKAETAKO HARTZAK

San Martin - Troskaetako koba - San Martin

Luzera: 7'2 Km **Iraupena:** 2 ordu
15 minutu (kobara bisita aparte)

JENTILEN BIDEK

San Martin - Erremedio - Agautz - Leizadi - Urkillaga - San Martin

Luzera: 14'2 Km **Iraupena:** 5 ordu

ARTZAINEN INGURUA

Aia - Urkillaga - Agautz - Sastarri - Marumendi - Aiaiturrieta - Aia

Luzera: 11'6 Km **Iraupena:** 4 ordu
30 minutu

TRIKUHARRIEN IBILBIDEA

Kaxeta - Bernoa - Intsusburu - Balañkaleku - Aitxu - San Gregorio

Luzera: 16Km **Iraupena:** 6 ordu

•

AMAITU DIRA

HERRIBIDE

ZAHARRA

BERRESKURATZE

LANAK

•

LAREO

Lizarrusti - Akerreta - Lareo - Ube-
giko Leizea - Lareo - Lizarrusti

Luzera: 8'5 Km **Iraupena:** 3 ordu
30 minutu

Ibilbide hauek ezagutarazteko gida txiki bat ere argitaratu da, ba-koitzaren nondik norakoa eta ezaugarriak azalduz. Bestalde, Goieki eta Goimenek koordinatuta Goierriko ibilbideekin kaleratu den gida-liburuan ere 6 hauek txertatu dira.

Udalbatzak horrela erabakita, lan hauek burutzeko Joxe Ramon Agirrekin sinatu zen kontratua eta 2.098.600 pezetako kostoa izan dute. Ekimen honetarako Eusko Jaurlaritzako Turismo Sailak 750.000 pezetako dirulaguntza eman dio Udalari.

Ibilbide hauetako baten zati bat, Sara izenekoarena hain zuzen, herribide zaharrak osatzen du, eta hau berreskuratze kostuak sartu gabe daude aipatutako diru kopuru horretan.

Arreta berezia eskeini zaio herribide zaharra berreskuratzeari, konpontze lanak hasi bezain laister herritar ugari hasi bait zen bertatik paseatzen. Guztira 16 milioi pezeta

inguru kostatu da, Udalak 5 milioi t'erdi jarri dituelarik. Foru Aldundiko Ingurugiro eta Nekazaritza Departamentuak 4 milioi t'erdi kostatu den mobiliarioa (baranda, jolasleku, banku e.a...) bideratu du, Eusko Jaurlaritzako Garraio eta Herrilan sailak 4 milioiz Zelabear inguruan erreka bideratuz bidea egokitu du eta Foru Aldundiko Ekonomia eta Turismo Departamentuak 2 milioi inguruko laguntza eskeini du bi langile bide horren konponketarako kontratatzeke.

Horrez gain, herritar batzuk beraien etxe inguruetan lana gogotik egin dute herribidea tajutzen, eta Udalak borondatez burutu diren lan hoiek biziki eskertzen ditu.



•

GIDA BAT

KALERATU DAI

IBILBIDE HAUEK

EZAGUTARAZTEKO

•

t
ZELABEAR
ATZEKALDEAN: ERREKA
BIDERATU ETA BIDEA
BERRESKURATUTA.

BASERRI BIDEAK HOBETZEN



t
**IGARTZATERAKO
BIDE BERRIA**

Baserri bideak hobetzeko ahalginean jarraitzen du Udalak Gipuzkoako Foru Aldundiarekin elkarlanean. 1997an orotora 11.236.768 pezeta inbertitu dira ondorengo proiektuetan:

- *Andralizeta baserrira bidea ormigoitu (430 metro)3.278.565,-*
- *Igartzatera bide berria ireki eta egokitu Arratineatik (570 m)6.692.063,-*
- *Urrutsumendin luizi-gune batetan parrila jarri eta ormigoitu1.266.140,-*

Lan hauen kostua era honetan bideratzen da: %65a Foru Aldundiak jartzen du Goimenen bitartez, %15a Udalak eta %20a edo horri dagokion eskulana, bide horretaz baliatzen diren baserritarrek eta lur-jabeek.

1997ko abenduaren 30ean Udalbatzak egindako Osoko Bilkuran 1998 eta 1999rako Goimeni zuzendu beharreko eskaerak onartu ziren. Hauek dira:

1998rako:

- *Igartzaterako bidea ormigoitu.*
- *Aigualde-Txikira bidea ireki.*
- *Armuno rako bidea ormigoitu.*
- *Sorozabalerako bidea ormigoitu.*
- *Beamarako bidea ormigoitu.*
- *Iturberako bidea ormigoitu.*

1999rako:

- *Ubelarraingo bidea ormigoitzez amaitu.*
- *Lixarburako bidea ormigoitzez amaitu.*

- *Aldakiorako bidea ormigoitu.*

Goimenek onartutakoaren arabera 1998 eta 1999an ondorengo lan hauek egingo dira:

1998an:

- *Igartzaterako bidea ormigoitu.*
- *Sorozabalerako bidea ormigoitu*
- *Lixarburuko bidea ormigoitzez amaitu.*

1999an:

- *Bedamarako bidea ormigoitu.*
- *Ubelarrainerako bidea ormigoitzez amaitu.*

Iturbe, Aigualde-txiki eta Armuño baserrietarako bideak ez ditu Goimenek lehentasunezko proiektutzat hartu, bide motzak direlako, errepi-detik gertu daudelako eta nekazal iharduerarik apenas dutelako. Aldakiokoa berriz inor bizi ez delako eta nekazal iharduerarik apenas duelako.

1997AN

11 MILIOI PEZETA

INBERTITU

DIRA



ANDRALIZETARAKO BIDEA ORMIGOITUTA

%0'7

ELKARTASUNERAKO



ATAUNDARRON LAGUNTZAREKIN NIKARAGUAN ERAKITAKO
HAURTZAINDEGIA.

Udalbatzak, 1998ko ekainaren 4ean egindako Osoko Bilkuran, herrialde behar-tuenekiko lankidetza programa eta dirulaguntzak banatzeko deialdia luzatzea erabaki zuen.

Deialdi horretara inolako irabazi asmorik ez duten legez osatutako erakunde ez gubernamentalek aurkez zitzaketen beraien proiektuak, eta lau izan ziren eskabidea luzatu zutenak: Manos Unidas, Gipuzkoako "Oscar Romero" solidaritza batzordea, Mugen Gaietik eta Medicus Mundi.

1997rako 850.000 pezeta zituen Udalak proiektu ezberdinen artean banatzeko, eta deialdian zehaztutako erizpideen arabera, 1997ko azaroaren 5ean egindako osoko bilkuran, Udalbatzak ondorengo proiektu hauei laguntza eskeintzea erabaki zuen:

850.000

PEZETA

ZUZENDU

DIRA

GUATEMALA,

EL SALVADOR

ETA CUBARA

Guatemalara itzultitako en- hezkuntza beharretarako

Mugen Gaietik elkarteak Guatemalako Rigoberta Menchú Tum Fundazioarekin elkarlanean garatzeko aurkeztu duen proiektua da hau. 80. hamarkadan Guatemalak bizi izan zuen gatazka armatuaren ondorioz milaka eta milaka gizon-emakumeek inguruko oihanetan eta Mexikon errefuxiatu behar izan zuten. 1986a geroztik errefuxiatuen itzulera ematen hasten da, eta 1995era bitartean 25.000 inguru iztuli ziren. Gaur egun oraindik asko dira itzuli ez direnak. Nazio honen pake eta normalizazio bidean garrantzi izugarria du itzulera honek eta era berean ematen ari den komunitateen arteko errekonziliatzeak. Proiektu honek hori bultzatu asmoz, itzultzen direnen hezkuntza eta prestaketa ditu helburu. Itzultitako 4 komunitateetako haur eta gazteen hezkuntzara zuzenduko da laguntza, alde batetik materiala bidaliz eta bestalde 200 ikasle diruz lagunduz, ikasten jardun daitezen. Proiektuaren kostua 4.207.140 pezetatakoa da eta Ataungo Udalak 400.000 pezeta zuzenduko ditu.

"El Mango" komunitatearentzat ur edangarria

Oscar Romero Solidaritza Batzordeak ADIC El Salvadorreko erakundearekin batean aurkeztu duen proiektua da hau. El Mango, El Salvador mendebaldeko 27 etxebizitzaz



osatutako komunitate bat da. Gaur egun, etxebizitza hauek ez dute urik eta ibili luzeak egin behar izaten dituzte herri inguruko iturrietatik ura ontzietan ekartzeko. Proiektu honen helburua, ur potzu bat egokitu, bonbeo bidez ura depositu batetara atera eta gero tuberi bidez 27 etxebizitzetara banatzea da. Aurrekontu osoa 3.150.351 pezetakoa da eta Ataungo Udalak 300.000 pezeta zuzenduko ditu.

materialez hornitzea da. Medicus Mundi-k aurkeztu duen proiektu honen aurrekontua 860.000 pezetakoa da eta Ataungo Udalak 150.000 pezetakin lagunduko du.

1998ean ere laguntza hauek ematen jarraitzeko asmoa du Udalak eta ekainaren 3an onartu zuen Udalbatzak horretarako deialdia.

t
EL MANGO
KOMUNITATEKOAK
UR POTZUA
ERAIKITZEN.

“Julian Grimau” poliklinikara larrialdietarako beharrezko tresneria

Julian Grimau Cubako Arroyo Naranjo hirian kokatutako poliklinika bat da eta 200.000 biztanleei erantzuna ematen die. Cubak gaur egun bizi duen egoera ekonomiko larria dela eta, poliklinika honek larrialdietarako zerbitzua emateko ekipamentuan gabezi handiak ditu. Proiektu honen helburua, zerbitzu hori egoki emateko poliklinika hori

HERRIALDE

BEHARTSUNETAKO

BIZTANLEGOAREN

BALDINTZA SOZIO-EKONOMIKOAK

GARATU ETA HOBETZEN

LAGUNTZEA DA HELBURUA

ARAU ORDEZKATZAILEEN ALDAKETA

Ur boteilaratze entresa eraikitzeke lurak izendatu dira eta Marumendi eta Erremedion ostalaritza ekimenak gauzatzea aurreikusi da



ERREMEDIOKO BAINUETXEA (1918)

“**N**ormas subsidiarias” bezala ezagutu izan ditugun arau ordezkatzailen aldaketa espediente bat martxan jarria du Udalak. Espediente honek, lur ez-urbanizagarrietan lehen aurreikusi gabe ziren eta garapen ekonomikora zuzendutako ekimen batzuk burutu ahal izatea du helburu:

Lehenik, Imatzene inguruan eraiki nahi den ur boteilaratze entresa egin ahal izateko lurak izendatu eta kalifikatu.

Bigarren, bai Marumendi inguruan eta baita Erremedio inguruan ere, ostalaritza ekimenak gauzatu ahal izateko lurak mugatu eta kalifikatu.

Aldaketa honetan, hauetako edozein ekimen burutu aurretik inguru-

giroari buruzko txostena egin eta plan espezial bat tramitatu beharko dela zehazten da.

Aldaketa honen aurrerapena jendaurrean egon zen lehenik eta alegazio bateratuak aurkeztu zituzten Gipuzkoako Mendi Federazio, Eguzki, EHNE, Aralar Izadi Taldea, Herri Ekimena eta Nekazalturismo elkar- teak. Apirilaren 8an, aurkeztutako alegazioei erantzun eta aurrerapena ontzat emanez agiri definitiboa egi- tea erabaki zuen Udalbatzak. Udal- batzaren ustez, aurkeztutako alega- zioak ez baitziren nahiko arrazoi aldaketa bertan behera uzteko.

Agiri definitiboa amaituta dago eta Udalbatzaren erabakiz jendaurrean jarri da berriro herritarrek alegazioak aurkeztu ditzaten. Hauek aztertu eta erantzun ondoren, behin-behineko onarpena emango dio Udalak eta Diputaziora bidali, hark ontzat eman dezan.

Aldaketa honek aurrera egin de- zan, ezinbestekoa izango da Eusko Jaurlaritzak Aralar Parke Naturale- rako onartua duen ordenantzari al- daketa bat egitea. Aldaketa hau ere eskatua dago eta dagoeneko trami- tzen hasia ere bai, baina era hone- tako tramiteek duten konplexutasu- nagatik luze joango da.

ARTXIBO HISTORIKOA

San Martingo elizan dagoen artxibo historikoko zati handi bat herri artxiboa da, nahiz eta urteetan elizan gordea izan den. Jo-xemiel Barandiaranek 1981ean herriko Erretore jaunari eta Uribatzarri zuzendutako gutun batean, artxibo horretan dauden agirien garrantzia azpimarratzeaz gain, zeuden egoeraren aurrean kezkatu agertzen zen, eskutitza honela amaitzen zuelarik: "... Har zazute beraz ageripillo hori galbidetik ateratzeko erabaki bat eta hori lortzeko bidea."

ARTXIBO HISTORIKOA BERRINBENTARIATU ETA MIKROFILMATU EGINGO DA

Harreman ugari izan dituzte Udal ordezkari eta gai honetaz arduradunak. Udalak, herri artxibo diren dokumentuak Udaletxean horretarako egokitua duen gela batetara ekarri nahi ditu. Gotzaitegiak aldiz, zera erantzuten dio: herri gehiagotan ere badirela antzeko egoerak, eta batzutan gainera eliz artxiboa Udaletxean dagoela gordeta. Beraz beraiek Eusko Jaurlaritzarekin akordio orokor bat lortu nahi dutela, Elizetan diren Udal artxiboak Udaletxetara pasatzeko, eta Udaletxetan diren eliz artxiboak Elizaetara pasatzeko.

Ataungo Udalak ordeza akordio orokor hori urrutu ikusten du eta ez du bitartean zai gelditzeko asmorik, eta ondorengo pauso hauek em-



t
ATAUNGO
ELIZAN
DAUDEN
DOKUMENTU
BATZUK

teko akordiora iritsi dira Gotzaitegiarekin: Lehendik inbentariatuta dagoen arren, berriz material guztia berrinbentariatu eta karpitetan antolatuko da. Ondoren, herri dokumentuak mikrofilmatu egingo dira eta mikrofilme hori Udaletxean izango da. Era honetan, dokumentuei ezusteko galeraren bat gertatuta ere, seguritate kopia izango genuke, eta Udalak mikrofilmeak bere esku izango ditu, bere, nahiz herritarren konsultarako.

Lan hauei aurtengo udan ekiteko asmoa du Udalak, horretarako langile bat kontratatuaz. Udalak artxibo historikoa eratzekeo egitasmoa INEMi aurkeztu zion, eta honek ordainduko du horretarako beharrezko den langilearen kostua.

Baina Udalaren helburu izaten jarraitzen du dokumentu originalak eskuratzeak, eta ahalegin horretan jarraituko du lanean.

DOKUMENTU ORIGINALAK ESKURATZEKO AHALEGINEAN JARRAITUKO DU UDALAK

ABIADURA HANDIKO TRENA DELA ETA...

t
ATAUNGO
DOMOA
TUNELEAN
PASAKO
LUKE



1997ko apirilean Tren-Sarearen Lurralde-planaren aurrelaburpena jendaurrean jarri zuen Eusko Jaurlaritzak. Sare nagusia, Gasteiz-Bilbo eta Donostia lotzen dituen “Y” eza-guna ez da Ataundik pasatzen, baina sare nagusi hau Nafarroarekin lotzeko dauden aukera ezberdinen artean, H1 bezala ezagutzen denak Ataun zeharkatzen du.

Abiadura handiko trenaren ibilbi-deak berekin dakarren azpiegitura ezartzeak, arriskuan jarriko luke Aralarko Parke Naturala babestu eta kontserbatzeko beharra.

Ataundik pasatzen den H1 alternatiban, Ataungo domo guztia zeharkatzea aurreikusten da, lurpeko ibilbide bikoitz baten bidez. Hau da, Olaberria eta Zaldibia inguruetan hasiko liratekeen bi tunel luze izango lirateke Ataun zeharkatuko luketenak, haranetan bidezubiak joango liratekeelarik, bai Agauntzaren nagusian (Baztarrika inguruan), bai Aiakoan (bi alditan), bai eta Lizarrustiko ibarrean ere.

Gaiak duen garrantzia ikusita, Udalak Aralar Parke Naturalarekin batean alegazioak prestatu zituen. Hoietan ondorengo puntu hauek azpimaratzten dira: Trenbidea pasako litzatekeen guneek duten natur aberastasuna (batzuk Parkeak babes-gune izendatuak), Aiako auzoari egingo lioken eragina, Aiaiturrietako agerpen karstikoa desagertzeko arriskua, bidezubiek izango duten eragin fisiko eta bisuala e.a... Eta arrazoi hoietan oinarrituta, H1 alternatiba onartezina jo zuen Udalak, eta Eusko Jaurlaritzari Iruñarekin komunikatzeko Ataungo harana ikutuko ez duen beste ibilbide bat aztertzu beharko dela jakinerazi zion.

1998ko martxoaren 26ean Trenbide-sarearen Lurralde-planari hase-rako onespina ematen dion Garraio eta herrilan sailburuaren agindua argitaratu zen. Bertan “Y” da gehin landua agertzen dena eta Atauni zuzenki eragiten dion Nafarroako lotura apenas landua agertzen den. Dirudinez lehenik “Y” aurrera eramatea da helburua eta gaineratikoak beste fase batzutarako uzteko asmoa dute. Hala eta guztiz, Udalak Sailburuaren haserako onespen honi ere lehengo alegazio berak aurkeztu dizkio, aurrekoek ez baitute inolako erantzunik jaso.

Aurrerantzean ere gai honi gertutik jarraitzeko asmoa du Udalak.

**ALEGAZIOAK
AURKEZTU
DIZKIO
UDALAK
TREN-
SAREAREN
LURRALDE-
PLANARI**

AUTOBUS ZERBITZU BERRIA

Goierrialdea bezala ezagutu dugun autobus zerbitzu berria martxan da. Goierri osorako zerbitzu bateratu bat egin nahi izan da, horretarako hiru linea nagusi jarri direlarik: Lehena Zaldibia eta Idiazabal lotzen dituen, bigarrena Ataun eta Zegama eta hirugarrena Legorreta eta Zumarraga. Hiru linea nagusi hauez gain, herri txikiei irtenbidea emateko beste lau linea ere badaude.



t
KAXETAKO GELTOKIA

GOIERRI OSORAKO ZERBITZU BATERATU BAT OSATU DA

Goieki eta Foru Aldundia izan dira eraketa hau koordinatu dutenak, eta Udala, Ataunek zerbitzu egoki bat izan zezan ahalegindu da, behar adinako maiztasuna eta ordutegi finkoak izatea bultzatuz. Horrezaz gain herritarrei informazioa zabaldu eta zerbitzua erabiltzeko gonbitea luzatu zaie.

Gipuzkoako Foru Aldundiko garraio eta errepideetako departamentuak ekimen hau 210 milioi pezetaz lagundu du, diru hau, zerbitzuak be-

harrezko zituen haserako inbertsioetarako erabili delarik.

Zerbitzua hobetzeko ahaleginean, geltoki guztietan ordutegiak adieraziz informazio guneak jarri dira, eta hiru geltokitan aterpeak ere bai. Honen kostua 2.213.355 pezetakoa izan da eta Foru Aldundiak 1.495.530 pezetako laguntza eman dio Udalari.

GELTOKIETAN INFORMAZIO GUNEAK JARRI DIRA

UDALA ATAUNEK ZERBITZU EGOKI BAT IZAN DEZAN AHALEGINDU DA

ORGANOA: DISKA ETA LIBURUXKA KALEAN



t
DISKAREN
AZALA

•
**DISKA HAU
MUNDU
OSOAN
ZABALDUKO
DA**
•

1996ean amaitu zituen Jose Mari Arrizabalagak 1761ean Lorenzo de Arrazolak San Martingo elizarako egindako organoaren eraberritze lanak. Geroztik, Udalaren helburua organoa ezagutaraztea eta herritarrei organoaz gozatzeko aukerak eskeintzea izan da, Esteban Elizondok dioen bezala “soinurik ez duen organoa, urte gutxitan geldituko da mutu” eta.

Helburu horretara biltzen dira, pasa den apirilaren 25ean aurkeztu ziren diska eta liburuxka.

Diska honen grabaketa Alemaniako Motette etxearekin egin du Udalak, horrelako grabaketetan aditua delako batetik eta diska mundu osoan zabalduta izan dadin bestetik. Grabaketarako organo-jolea berriz, Esteban Elizondo izan da eta 12 pieza bildu ditu bertan. Eta mundu osoan zabalduta izango denez, argibi-

deak euskaraz, gazteleraz, ingelesez eta alemanez azaltzen dira diskan.

Organoaren berezitasunak ezagutarazteko berriz, liburuxka bat argitaratu da, lehen zatian Ataungo Organo Barrokoaz mintzo delarik eta bigarrenean organoaz orokorrean.

Liburuxka hau Udaletxean eskura daiteke, eta diska ere bai, bi mila pezeta ordainduz. Udaletxean ezezik, diska dendetan ere salgai dago.

Diska eta liburuxkaren argitalpena 1.433.993 pezeta kostatu zaio Udalari. Jaso diren laguntzak ondorengo hauek izan dira: Foru Aldundiak 300.000 pezeta, Kutxa Fundazioak 300.000 pezeta eta Eusko Jaurlaritzak 230.000 pezeta. Udalak 603.993 pezeta jarri ditu eta diru hori disken salmentarekin errekupe-ratzea espero da. San Martingo Parrokiak aldiz, bai grabaketarako eta baita gaineratiko ekimenetarako ere ateak beti zabalik izan ditu, eta aurkezpenean alkateak jarrera hori eskertu egin zien.

Udalak kontzertuak antolatzen jarraituko du, herritarrei entzuteko aukera eskeiniz eta organoa bera bizirik eta ondo mantetzeko ahaleginean.

•
**ORGANOAREN
BEREZITASUNAK
LIBURUSKAN BILDU DIRA**
•

HERRI LURREN ANTOLAKETA

Agauntza, Marumendi eta Aitzarte mendietan herriak dituen lur sailetan enklabatu bezala ezagutzen ditugun partikularren lur-zatiak ditugu. Era berean, herriak ere baditu lur-zati txikiak partikularren tartean.

Udalaren helburua herri lurrak bateratzea da, hau da: Alde batetik enklabatuak kendu, eta bestetik, solte dituen lur-zati txikiak handiagoei bateratu.

Lehen-lehenik, partikularrek herri lurretan dituzten enklabatuak eta herriak solte dituen lur-zatien inbentario bat egin da, jabea, leku izena, zenbakia, neurria eta duen landare-tza zehaztuz. Guztira 69 enklabatu identifikatu dira, 36 Agauntza mendian, 9 Aitzarten eta 24 Marumendin. Herriak partikularren artean solte dituen lur-zatiak aldiz 27 dira.

Helburua bateratzea izanik, truke eragiketak planteatu dira. Hau da, enklabatuak jabea deitu zaie eta be-

raiena den enklabatu antzeko herri lurrengatik trukatzeko proposatu; herri lur hauek herriak bere muga dituenak edo solte dituen zatiak dira. Kasu askotan, herriak trukean proposaturiko lurrak beraienak direnekin muga egiten dute, beraz partikularren kasuan ere lurzorua bateratzea lortuko luke.

Herriak solte dituen lur zatiekin aldez, inguruko partikularrei planteatu zaie beraiek herri lur nagusien inguruan dituzten lurrengatik trukatzeko.

Lan hauek bideratzeko Lurdes Altuna teknikaria kontratatu du Udalak Inem eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntzarekin.

Dagoeneko trukaketa batzuk aurrera doaz, jabe partikularrekin adostuta 5 ontzat emanak ditu Udalbatzak, orotara 14 enklabatu kenduko direlarik. Gaineratikoak ere bideratzeko ahaleginean jarraitzen du Udalak, partikularrei proposamen ezberdinak eginaz.



**HERRI LURRAK
BATERATU
NAHI DIRA**

**DAGOENKO
14
ENKLABATU
TRUKATU DIRA**

**t
AITZARTE
MENDIA**

KULTUR ETA KIROL EKINTZEN GARAPENERAKO DIRULAGUNTZAK

Urtero egin ohi den moduan, aurtengo ere, kultur eta kirol ekintzak antolatzen dituzten elkarteetara beraien egitasmoak aurkezteko deialdia egin zitzaien. Aurkeztutako eskaerak Kultur eta Kirol Batzordean aztertu, eta Udalak horretarako onartua duen araudiaren arabera, ekintza bakoitzari zegokion dirulaguntza zehaztu zen.

HERRITARREK

ANTOLATUTAKO

KULTUR ETA

KIROL EKINTZAK

BULTZATZEA

DA HELBURUA

ELKARTEA ETA EKINTZAK	LAGUNTZA
EATE ABESBATZA Hitzarmena	120.000
DANTZA TALDEA Hitzarmena	100.000
ATAUN KIROL ELKARTEA Areto futbola Ibilaldi Neurtua - Mendi astea. Pilota-Pala txapelketak IV. Tenis txapelketa Pilota (federatuak). Mahai tenis txapelketa Ataungo V. Futbito Txap.	462.472 79.969 9.097 5.116 46.646 12.791 31.097
J.M.B. MURKONDO K.E. J.M.B. VI. urtemuga zikloa	191.434
HAURKIDE ELKARTEA Kabalgata Zinema saioak Ihauteriak Bazko asteko tailerrak Jolasak Irteerak	9.170 9.369 8.771 8.671 11.429 23.124
ATSEDEN TOKI ELKARTEA Jokuak Bi hitzaldi Ibilaldi neurtua	122.715 17.143 29.024
J.M. BARANDIARAN ESKOLA Igeriketa kanpaina Kirol estraeskolarra Eguzki Berri aldizkaria Otsoa Irratia	74.235 187.859 133.682 60.002



t
A.K.E. LAGUNTZAK JASOTZEN DITUEN ELKARTEETAKO BAT

Araudia osorik azaltzea ezinezko bada ere, esan, elkarte bakoitzak beste elkarteek aurkeztutako ekintza guztiei puntuaketa bat ematen diela. Denek emandako puntuaketaren batz-besteko bat egiten da, eta dirulaguntza, jasotako puntuazioaren arabera zehazten da. Beraz, elkarteak beraiek dira beraien artean dirua banatzeko proposamena egiten dutenak.

Proposamen hori Kultur eta Kirol Batzordeak Udalbatzari aurkezten dio eta honek ematen dio azken onarpena. 1998rako dirulaguntzei ekainaren 3an egindako Osoko Bilkuran eman zien onarpena Udalbatzak eta modu honetan gelditu dira:

Dirulaguntza jaso ahal izateko, ekintza burutu eta dagozkion fakturen kopiekin likidapena aurkeztu behar izaten dute elkarte ezberdinek. Ekintzarik burutu ez, galerarik izan ez edo likidapenik aurkeztu ezean, elkarteek ez zaie inolako diru ordainketarik egiten.

● EKINTZA

BURUTU ETA

LIKIDAPENA

AURKEZTEA

EZINBESTEKOA DA

DIRULAGUNTZA

JASOTZEKO ●

AITZARTE ETA SAN GREGORIOKO ERREKA BIDERAKETAK



t
AITZARTE
ERREKA
IZTATOR
EZKERRALDETIK
JAITSIKO DA.

Aspaldiko asmoa da Aitzarte eta San Gregorion erreka bideratzea. Horretarako proiektu bat egina zegoen baina atzera bota zuen Eusko Jaurlaritzako obra hidrauliko sailak. Ondorioz proiektua berregin da eta dagoeneko jendaurrean ere egona da inolako alegaziorik jaso ez duelarik.

Proiektu hau aurrera eramateko ezinbestekoa gertatu zen arau ordezkatzailerak aldatzea eta aldaketa hori ere emana dago. Horrez gain obrak egin ahal izateko beharrezko diren lurak ere bideratuak daude, batzuk erosketa bidez eta beste batzuk konbenio bidez.

Esan daiteke beraz, aurr- lanak amaituta daudela, baina arazoa finantziazioan sortzen da. Lan hauek 100 milioi pezeta inguruko aurrekontua dute, eta Udalaren helburua %75a Jaurlaritzak eta %25a Diputazioak jartzea da.

Etengabekoak izan dira diru hoiek lortzeko Udaletik egin diren ahaleginak. Diputazioak, Jaurlaritzak bere zatia jartzean berari dagokion %25a agindu du. Arazoa ordea Jaurlaritzarengandik %75 lortzea izan da. Jaurlaritzak era honetako eskaera izugarri ditu eta uholdeen arriskuaren arabera ematen ari da laguntzak, ondorioz, Ataungoa atzeratuz joan da.

Eusko Jaurlaritzako ordezkariekin izandako azken bileran, irailean prestatuko dugun konbenio baten bidez lan hauen finantziazioa 1999-2000. urteetarako lotuta uztea adostu zen. Legegintzaldia amaitu aurretik beraz, konbenio honen bidez lan hauek bideratuta uztea da Udalaren nahia.



SAN GREGORIO ERREKA BIDERATUKO DEN GUNEA.

AURRE-LANAK
AMAITUTA
DAUDE. ORAIN
ARAZOA
FINANTZAZIOA
DA

bi hitzetan

a
o
i
r
a
m
u
n

I.568 gara Ataunen

Baso ustiaketak

Azken etxebizitzak salgai

Ataun aztergai beka

Arantzamendi larretoki

1998rako udal zergak

Jose Miguel de Barandiaran Fundazioa

berriro martxan

4.677.210 pezeta herriko jaietarako

Zinema antzokia

Argazki lehiaketa 97

San Gregorio eskolen eraberritzea

Euskal abizenak euskal grafiaz

Sagrario Eskisabel alkatesa ohia zigortuta

Udal langileen prestakuntza

Kaleko salmenta arautu egin da

Otso festa

Mediku etxeen salmenta

Margolaritza eta egur tintaketa ikastaroak

San Isidro eguna

Garbiketa lanak

Auzolandegia udan

UDALBERRI

1.568 GARA ATAUNEN



1998ko urtarrilaren leko datarekin onartu zuen Udaltzazak otsailaren 4ean biztanleen errolda. Guztira 1.568 biztanle zituen Ataunek modu honetan banatuta:


<i>San Martinen</i>1.020	<i>San Gregorion</i>401
Helbarrena.....628	Erdigunea193
Astigarraga.....79	Ergoiena107
Arrondoa.....87	Lauztierreka.....35
Arin auzoa.....38	Murkondo
Otadi aldea32	aldea37
Suki aldea39	Urrutxu
Otamots aldea29	mendi29
Aitzarte aldea.....54	<i>Aia</i>147
Ustatxo aldea.....34	

Azken errolda 1996ko maiatzaren leko erreferentziarekin egin zen eta orduan 1.589 ginen Ataunen. 21 lagun gutxiago gara beraz, 29 izan direlarik hildakoak eta 17 jaiotakoak, eta 34 beste herri batzuetara joandakoak eta 25 beste herri batzuetatik etorritakoak.

BASO USTIAKETAK

1997.ean Aldarreta gainean kokatutako 17'5 hektareako insignis pinudia atera zuen Udalak subastara. Oinarritzko prezioa 32.526.000 pezeta zuen eta lehen deialdian inor ez zen aurkeztu. Bigarren subasta bat ere egin zen prezio berean eta berdin. Egoera honetan Udalak prozedura negoziatuari ekin zion eta bi eskeintza lortu ziren: Milagros Apecechea 27.400.000 pezeta ordaintzeko prest agertu zen eta Iturberri S.L. 26.500.000 pezeta. Eskeintza hoiek izanik, Udaltzazak Milagros Apececheari adjudikatzea erabaki zuen. Geroztik Milagros Apececheak ustiaketa baldintza berdinetan Central Forestal entpresari subrogatzeari eskatu zuen eta Udalak ontzat emana du.

Aurten berriz, Zaldibiako Arkaka inguruan Atxuripea bezala ezagutzen den guneko insignis pinudia jarri du subastan Udalak. Guztira 5.871 pinu kalkulatu dira matarrasez bota beharrekoak eta oinarritzko prezioa 17.650.000 pezeta. Deialdira Central Forestal aurkeztu da 17.750.000 pezetako eskeintzarekin, eta Udaltzazak berari adjudikatzea erabaki du.



t


PINUDIA ATERA DEN ALDARRETA GAINA

AZKEN ETXEBIZITZAK SALGAI

Eraikitzen ari diren babes ofizialeko etxebizitzak salmenta bide onetik doa, dagoeneko 29 saldu dira eta 7 gelditzen dira saltzeko, 4 hiru logelakoak eta 3 bi logelakoak. Beraz, oraindik aukerak badituzte zalantzan dabilzanek. Eraikuntza lanak doazen moduan, urte bukaerarako etxebizitzak amaitzea espero da.



ATAUN AZTERGAI BEKA



MIGUEL IMAZ

Ataungo Udalak 1996. urtez geroztik, Ataun Aztergai Beka deialdi irekia antolatzen du, herria bere arlo desberdinetan lantzen eta aztertzen dituen ikerlanak bultzatzeko. Beka hau jasotzen dutenei 200.000 pezeta zuzentzen zaizkie lana amaitutakoan.

Aurrez Udalberrin azaldu genizuen bezala, 1996ko II. Ataun Aztergai Beka Lourdes Altunari eman zitzaion “SORTA BELARRAK EKARTZEKO KABLEA”ren inguruan aurkeztutako lan proiektuarengatik.

Lan hau berez amaituta badago ere, duen balioarengatik, osatze prozesu berri bat ireki zitzaion (planoekin, argazkiekin, marrazkiekin, ...) eta urte amaierarako erabat amaituta eta argitaratuta izatea espero dugu.

1997ko III. Ataun Aztergai Beka, Iñaki Imaz Mujikari eman zitzaion “MIGUEL IMAZ APALATEGUI. AZTERKETA HISTORIKO-BIOGRAFIKOA”ren inguruan aurkeztutako lanarengatik. Lan hau amaituta dago eta uztailean argitaratuko da.

1998ko IV. Ataun Aztergai Beka, Maximo Aierbe Mujikari eman zaio “ATAUNGO KANTU ZAHARRAK” gaiarekin aurkeztutako lan proiektuarengatik.

Bultzatutako hiru lan proiektuek, Ataungo herrirako duten interesa eta balioa ikusita Udalaren nahia lanak bukatu ahala argitaratzea da.

ARANTZAMENDI LARRETOKI



Arantzamendi eta Atxurbi ingurutean 22 hektareako lur zati bat du Udalak eta azken urteotan inolako kontrolik gabeko larretoki bat izan da. Larretokia baino gehiago otadia ere bazen hura. Lurraren berezitasunagatik teknikoki egokiena bertan aldaketak egitea zen eta horretara zihoan Udala Foru Aldundiarekin batean. Baina inguruko baserritarrak kexu agertu ziren beraien ganaduak hor larretzea nahi baitzuten.

Gaia aztertu ondoren, inguru horrek larretoki izaten jarraitzea erabaki da, baina larretoki kontrolatua. Horretarako araudi bat onartu du Udalbatzak, eta horren arabera urtero mendi horretara ganadua bota nahi duten herritarrek eskaera egin beharko diote Udalari. Eskerak eta larrearen egoera aztertuta, Udalak zeinek zenbat ganadu bota ahal izago duen erabakiko du araudiko erizpideetan oinarrituta.

Lehen pauso bezala, mendi hori garbitu eta larrerako egokitu da pasa den udazkenean.

Foru Aldundiaren lankidetza eta laguntza ekonomikoa izan du Udalak, eta aurrerantzean ere bi instituzioek elkarlanean kudeatuko dute gai hau, epe luzera aldaketak egin beharko direla begibistakoa bada ere.

1998rako UDAL ZERGA

1997ko urriaren 1ean, Udalbatzak 1998rako zergak onartu zituen. Aurrez jakina den moduan, Udal honen helburua zergak eguneratzen joateaz gain, zerbitzu bakoitzaren kostua, zerbitzu horri dagokion zergaren bitartez jasotzen denarekin parekatzea da.

Helburu horri jarraituz, defizitarioak ez diren zerbitzuei dagozkien zergak bizitza igoeraren pare igotzea erabaki du Udalak. Bestalde, zerga bidez jasotzen dena baino kostu handiagoa duten zerbitzuetan, pixkanaka parekatzeko bideari ekin zitzaion 1996ean eta 1997an bezalaxe bide beretik jarraituko da 1998an ere. Egoera honetan ur-hornidura, estolderia eta zabor bilketa ditugu, eta zerbitzu hauei dagozkien zergak %15ean igo dira.



JOSE MIGUEL DE BARANDIARAN FUNDAZIOA berriro martxan



SARA ETXEA

1994 geroztik geldialdi bat izan du Fundazioak, baina 1997ko martxoaren 13an egindako bileran etapa berri bati hasera eman zitzaiola esan daiteke. Geldialdiaren arrazoietakoa bat izan den Fundazioaren estatuto aldaketaren inguruan kontsentsu bat lortu zen bilera horretan eta aho batez onartu aipatutako aldaketa. Ondorioz, 1997ko maiatzaren 15ean Patronatu berria eratu zen estatuto berrien arabera, Jesus Altuna aukeratu zelarik presidente, Alvaro Arrizabalaga idazkari eta Jesus Mari Alkain diruzain. Hoiez gain Pilar Barandiaranek, aditu batzuk eta instituzioetako ordezkariak osatzen dute Patronatua, Ataungo Udala Alkateak ordezkatzeko duelarik.

Geldialdiaren ondorioz sortutako arazoak konpontzera eta lehendik Fundazioak bereak zituen zereginak berriz martxan jartzera zuzendu dira Patronatoaren lehen urratsak. Esan behar da, 1998ko apirilaren 22an egindako bileran Sara etxea erostea erabaki zela, jabearekin aurrez lortu zen akordioa onartuz.

4.677.210

pezeta

HERRIKO JAIETARAKO

Otsailaren 4ean egindako bileran Herriko jai ezberdinetarako diru izendapenak onartu zituen Udalbatzak. Hiru auzo nagusietako jaietarako 3.753.210 pezeta onartu ziren. Diru hau hiru auzoen artean banatzen da, %55a hiru zati berdinetan egiten delarik eta %45 auzo bakoitzak duen biztanleriaren arbera:

San Martingo jaiak1.785.902,-
San Gregorioko jaiak.....1.127.215,-
Aiako jaiak.....840.093,-

Bestalde auzo bakoitzerako 100.000 pezeta gehiago izendatzen dira eskenatoki muntaketa eta desmuntaketarako.

Garaipen eguna (ekainak 15) eta San Gregorio egunerako 160.000 pezeta, aurreko kriterio berdinekin banatuta:

Garaipen eguna95.120,-
San Gregorio eguna.....64.880,-

Auzo ezberdinetan ospatzen diren San Juan jaietarako 160.000 pezeta honela banatuta:

Arrondo48.000,-
Ergoiena.....48.000,-
San Martin32.000,-
San Gregorio32.000,-

Hauez gain, San Pedro egunerako 27.000 pezeta, Aranzamendiko erromerirako 27.000 pezeta eta San Isidro egunerako 150.000 pezeta. 100.000 pezeta gorde dira sortzen diren ezustetarako.



t
JENTILAREN ETORRERA

ZINEMA antzokia


Futbol zelaiko etxebizitzekin batean, Udalak zinema-antzoki bat eraiki ahal izateko areto bat jasoko du, egitura eta itxiturak bakarrik. Gero Udalaren esku izango da areto hori zinema-antzoki bezala eratu eta tajutzea. Eraketa hori egiteko proiektua dagoeneko enkargatua du Udalak. Eskeintza ezberdinak aztertu ondoren Carlos Callejo, Jesus Mari Berasategi eta Edurne Aperribay arkitektu hirukoteari adjudikatu zaio lan hau, antzeko proiektuetan duten esperientziagatik eta ekonomikoki egin zuten eskeintzagatik. Egitura jaso bezain laister, lehiaketa publikora aterako ditu Udalak eraikitze lan hoiek.



t

ZINEMA ANTZOKIA ERAIKIKO DEN ZULOA

ARGAZKI lehiaketa 97



t

ARGAZKI IRABAZLEA

60 argazki aurkeztu ziren lehiaketara eta denak erakusgai izan ziren abenduaren 19tik 31ra. Epaimahaiak modu honetan banatu zituen sariak:

Lehenengo saria Joxe Ramon Agirreri “Akaitzko basoa” argazkiarengatik (60.000 pezta).

Bigarren saria Jexux Etxeberriari “Lareo” izeneko argazkiarengatik (25.000 pezta).

Hirugarren saria Antton Etxeberriari “Egun sentia” argazkiarengatik (15.000 pezta).

Argazki hauekin postalak kaleratu ziren eta dagoeneko 1998ko lehiaketarako deialdia ere egina dago.

SAN GREGORIOko ESKOLEN ERABERRITZEA



San Gregorioko eskolen eraberriketari ekiteko asmoa du Udalak. Goitik beherako berritu bat eman eta bertan auzoaren beharretara egokituko diren zerbitzuak eskeini asmoz: mediku kontsultegia, jolasgela, areto nagusi bat e.a... eraberriketa honi dagokion proiektua Jose Antonio Fernandez arkitekтуari agindu zaio eta aurtengo udan amaitua izango da. Obra lan hauek zati batetan finantziatzeko San Gregorioko mediku etxea saltzea aurreikusia du Udalak.

EUSKAL ABIZENAK EUSKAL GRAFIAZ

Euskal abizenak euskal grafiaz idatzi ahal izateko kanpaina bultzatu du Udalak Bake Epaitegiarekin elkarlanean. Martxoaren 20tik 31ra eskaerak Udaletxean aurkezteko gonbitea egin zitzaien herrikoarrei eta 103 ataundar izan ziren bertaratu zirenak. Ondoren Euskaltzaindia da abizenak nola idatzi behar direnari buruzko txostena egiten duena eta azkenik Bake Epaitegi bidez Madrilera tramitatu behar da aldaketa onartua izan dadin. Hilabete batzuk barru ataundar hauek euskal grafiaz idatzi ahal izango dituzte beraien abizenak.

SAGRARIO ESKISABEL alkatesa ohia ZIGORTUTA



t
SAGRARIO ESKISABEL

1991tik 1995a bitartean zerbitzu militarrekin zerikusia duten zereginak bertan behera uzteagatik epaitua izan da Sagrario Eskisabel Alkatesa ohia. Epaketa horren ondorioz, 1997ko irailaren 1ean epaileak jarri dion zigorra ondorengo hau izan da: 180.000 pezetako multa eta 6 hilabetez alkatesa edo zinegotzi izateko gaitasungabetzea. Udalak elkartasuna adierazi eta bere gain hartu ditu bai multaren ordainketa eta baita abokatu zerbitzuena ere.

Aipatu behar da, gaur egun Alkate den Aitor Auzmendik ere 2 prozesu dituela irekita eta epaiketaren zain dagoela zerbitzu militarrekin ez kolaboratzeagatik.

UDAL LANGILEEN

pres ta kun tza

Udal langileen etengabeko prestakuntza beharrezkoa da egunez egun Udal zerbitzuak hobetzeko. Udalak helburu hori bere egina du eta Eusko Jaurlaritzako HAEE-IVAP erakundearekin hitzarmen bat sinatu ere egin du prestakuntza hori aurrera eramaterren. 4 fase izango ditu aurrera eramane nahi den planak:

1. Egoeraren azterketa.
2. Prestakuntza-beharren diagnostikoa.
3. Prestakuntza-planaren eraketa.
4. Prestakuntza-planaren gauzatzea eta jarraipena.

UDALBERRI

KALEKO SALMENTA arautu egin da



t

ASTELEHENETAKO AZOKA

Kaleko salmentak, hau da, saltoki finkoetan egiten ez den salmentak, gero eta garrantzi handiagoa du Ataunen, batez ere astelehenetako azoka burutzen denetik. Horregatik Udalak beharrezkoa ikusi du zenbait neurri hartzea: alde batetik, iharduera hoiek lehia aske eta leialean egiten direla ziurtatzeko, eta, bestetik, kontsumitzaileen bidezko esku-bideak zaindu eta bermatzeko, bai eta horien osasuna eta segurtasuna babesteko ere, eta eskaintzen diren ondasun eta zerbitzuen kalitatea ziurtatzeko.

Asmo horrekin onartu zuen Udalbatzak 1997ko urriaren 1ean kaleko salmentaren ihardunbidea eta baldintzak arautzen dituen ordenantza, aurrez jendeaurrean izan zelarik eta inolako erreklamaziorik ez jasotzean.

OTSO FESTA

Pasa den urte geroztik, kultur eta kirol ikasturteari amaiera emateko Otso Festa antolatzeari ekin zaio. Kultur eta kirol ekintza ezberdinez gain, urtean zehar ekimen ezberdinetan parte hartu dutenen arteko afari bat egiten da eta bertan banatzen dira txapelketa ezberdinetako sariak. Aurten lehenengo aldiz bertso eta kantu afaria ere egin da herriko bertsolariekin eta erantzun bikaina izan du.



t

KURTSO AMAIERA AFARIA

MEDIKU ETXEEN SALMENTA



t
SAN MARTINGO MEDIKU ETXEA



t
SAN GREGORIKO MEDIKU ETXEA

1998 ko aurrekontuetan aurreikusitakoaren arabera, bi mediku etxeak enkante bidez saltzeko asmoa du Udalak; San Martinen futbol zelaiko etxebizitzan azpian eraikiko delako berria eta San Gregorion aldiz, plazako eskola zaharretan.

Baina enkante hau egin aurretik ezinbestekoa da arau ordezkatzailak aldatzea, hauetan bi etxe hoiek zerbitzu publikorako zuzenduak daudelako, eta behin saldu ezker etxebizitza bezala erabiltzeko izango liratekeelako.

Beraz, aldaketa hau egiteari ekin dio Udalak, lehenik aurrerapena onartu eta jendaurrean egon ondoren, ez zen inolako alegaziorik aurkeztu. Ondorioz, agiri definitiboa egin, haserako onarpena eman, eta jendaurrean jarri zen berriro. Alegaziorik egon ez denez, behin-behineko onarpena eman dio Udalbatzak eta Foru Aldundira bidali, bertan onartu dadin, honek horretarako 6 hilabeteko epea duenarik.

MARGOLARITZA ETA EGUR TINTAKETA ikastaroak



t
IKASTAROETAKO LANEN ERAKUSKETA

Kurtso haseran ikastaroetan partehartzeko egindako deialdiaren ondoren jasotako eskaeretan oinarrituta, margolaritza eta egur tintaketa ikastaroak antolatu ditu Udalak amaitu berri den kurtsoan. Margolaritza ikastaroak bigarren kurtsoa izan du hau. Ikastaro hauetan parte hartu dutenen lanak, Otso Festa 98 kultur asteak iraun duen bitartean udaletxean izan dira ikusgai. Udazkenean egingo du Udalak datorren kurtsorako ikastaro deialdia.

SAN ISIDRO

eguna

Ohitura zaharrak berreskuratu nahiean San Isidro egunez azoka antolatzeari ekin zion pasa den urtean Udalak, eta esan daiteke azoka hori aurreten gorpuztua gelditu dela. Bertan, barazki lehiaketa, gazta dastaketa, ziza lehiaketa, gaztaia egite eta ardi ile mozte agerpenak, ardi eta ahari erakusketa e.a.. egin ziren, trikitixa, gazta, ardo eta sagardoz alaiturik. Barazki lehiaketako irabazlea Fatima Fonseca izan zen eta ziza alorrean berriz Migel Arratibel. Datozen urteetan egun hori indartzen joatea da Udalaren nahia.



GARBIKETA lanak

Udal eraikuntzetan Katea entresak egiten zituen garbiketa lanak, baina hauek zeregin hauek egiteari utzi behar ziotela eta kontratua etetea eskatu zuten. Horren ondorioz, Udalak lan hoiek lehiaketa publikora atera zituen eta 3 izan ziren jasotako eskeintzak. Eskeintzak kalitate eta ekonomi mailan aztertu ondoren, Udalbatzak 1997ko uztaila geroztik lan hauek Lending Service S.L. entresari adjudikatzea erabaki zuen, urteko 3.600.000 (+BEZ) pezeta ordaintzeko konpromezuarekin.


AUZOLANDEGIA UDAN



t

SAN GREGORIOKO ERROTA

Kutxa Fundazioak Udalarekin elkarlanean auzolandeği bat antolatu du aurtengo udarako. San Gregorioko errota eta errotatxoaren inguruko azpiegiturak garbitzea izango da zeregin nagusia, baita Intsustiko parke botanikoa ere. Uztailaren 20tik abuztuaren 2ra bitartean 19tik 21 urtera bitarteko 20 gaztek parte hartuko dute lan hauetan, Gabillenen izango dutelarik ostatu. Guztira 2.134.896 pezetako aurrekontua du eta Udalak 300.000 pezeta jarriko ditu, eta gaineratikoa Kutxa eta partehartzailen gain joango da. Ekimen honekin, aurreko urteetan ondarea berreskuratzeko hartutako bideari jarraitu nahi izan dio Udalak.



- Ataungo Udaleko udal-informazio aldizkaria -

• ARGITARATZAILEA •
ATAUNGO UDALA

• MAKETAZIOA • INPRIMAKETA
antza S.A.L.

• Lege Gordailua: SS - 1119/95

ATAUNGO UDALA ☎ 943.18.00.11